



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

# Datuen babesari eta langileen kudeaketari buruzko informazio gehigarria

13 de junio de 2018



▶ Arabako Foru Aldundia  
▶ Diputación Foral de Álava

## Aurkibidea

1. Bertsioen historia.....	3
2. Azken bertsiotik egin diren aldaketak.....	3
3. Agiriaren helburua.....	4
4. Zein da datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna? .....	4
5. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak? .....	4
6. Noiz arte edukiko ditugu zure datuak? .....	5
7. Zer legitimazio dago datuen tratamenduaren atzean? .....	5
8. Nortzuei emango zaizkie zure datuak? .....	5
9. Zer eskubide daukazu datuak eman ondoren? .....	5
10. Nola bildu ditugu zure datuak? .....	6

## 1. Bertsioen historia

KODEA	BERTSIO A	DATA	ALDAKETEN LABURPENA
	1.0	18/05/21	Lehen bertsioa

## 2. Azken bertsiotik egin diren aldaketak

DATA	AURREKO BERTSIOA		ALDAKETEN LABURPENA
	KAPITULU A	ORRIALDE A(K)	

### 3. Agiriaren helburua

Modu errazean azaltzea zein den AKGSAren politika barruko eta kontratazio poltsetako langileen datu pertsonalen tratamenduari buruz. Agiri hau Europar Batasunaren Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrak xedatzen duenaren arabera egin da.

### 4. Zein da datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?

Arduraduna: Arabako Kalkulu Gunea, S.A. – IFZ: A-01052539 (hemendik aurrera AKGSA), batez ere Erakunde Administrazioaren eta Giza Baliabideen Ataleko burua.

Posta helbidea: Probintzia plaza z/g, 01001 Vitoria / Gasteiz

Telefonoa: 945 181818

Posta elektronikoa: AdministracionCCASA@araba.eus

### 5. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

AKGSAk honako xede hauetarako erabiltzen ditu berarekin lan harremanak dituzten pertsonen buruzko informazioa:

- Langileekiko lan harremanak kudeatzeko; hain zuzen ere:
  - o Nominak ordaintzeko.
  - o Lan profilak mantentzeko.
  - o Ordutegiak eta egutegia kudeatzeko.
  - o Laneko arriskuen prebentziorako.
  - o Hitzarmenean edo enpresaren eta langileen arteko harremanak finkatzen dituzten kontratuetan ezarritako eskubideak erabiltzeko kudeaketak egiteko.
  - o Jarduera profesionala kudeatzeko.
- Lan poltsak kudeatzeko.
- AFAREN korporazioaren eraikinetara sarbideak kudeatzeko.

AKGSAk ez du egiten ezer pertsonen profilak ezartzeko.

## 6. Noiz arte edukiko ditugu zure datuak?

Biltzen diren datu pertsonalak AKGSArekiko kontratu harremanak indarrean dauden artean gordeko dira. Kontratu harremanak eten ondoren datuak 5 urtez gordeko dira, indarreko legeriak luzeago gorde behar direla ezarri ezean.

## 7. Zer legitimazio dago datuen tratamenduaren atzean?

Datuen tratamendurako lege oinarria da interesdunak baimena ematea kontratu harremanen esparruan datuak xede jakin batzuetarako erabiltzeko:

- AKGSArekiko lan harremanetan ezartzen dena betetzea.
- Interesdunaren baimena.
- AKGSAren legezko betebeharrak betetzea.

## 8. Nortzuei emango zaizkie zure datuak?

Datuak hauek jasoko dituzte:

- Nominak ordaintzen dituen bankuak.
- Laneko arriskueterako azpikontratatzan den konpainiak.
- Laneko joan-etorrietarako edo egonaldietarako kontratatzen diren bidaia konpainiek.
- Aseguru konpainiek.
- Elkarkidetza pentsio planak.
- Ikastaroak eta prestakuntzako beste ekintza batzuk egiteko kontratatzen diren konpainiek eta ikasketa entitateek.
- AFAREN Miñoien Zerbitzuak, AFAREN eraikinetako sarrera-irteerak kudeatzeko eta kontrolatzeko.

## 9. Zer eskubide daukazu datuak eman ondoren?

Pertsona guztiek dute eskubidea jakiteko AKGSAk beren datu pertsonalik erabiltzen duenez.

Pertsona interesdunek beren datu pertsonalak eskura ditzakete, eta eska dezakete oker dauden datuak zuzentzeko, bai eta ezabatzeko ere, bilketa eragin duten xedeetarako behar ez badira (beste arrazoi batzuk ere egon daitezke).

Kasu jakin batzuetan interesdunek eskatu ahal dute datuak tratatzeko edo eskualdatzeko mugak jartzeko; hori eginez gero, datuak erreklamazioetarako baino ez dira erabiliko.

Kasu jakin batzuetan interesdunek beren datuen tratamenduaren kontra egin dezakete beren egoera bereziengatik. Horrelakoetan AKGSAk ez ditu erabiliko aurkaratutako datuak honako bi kasuetan izan ezik: ezinbestekoa denean (arrazoia legezkoa izan behar da) edo erreklamazioak egiteko edo defendatzeko.

Datuen erabilera mugatzen bada edo tratamenduaren aurka egiten bada, baliteke AKGSAk egin ohi dituen jardueretako batzuk ezin egin izatea (ad.: prestakuntzako jarduerak, joan-etorriak eta egonaldiak ordaindu, eta abar); beraz, persona batek bere eskubideak erabiliz bere datu pertsonalen tratamendua mugatzen edo eragozten badu, uko egiten die AKGSAren jarduera horiei.

Aurreko paragrafoetan azaldutako eskubideren bat erabili nahi duenak horren berri eman behar dio AKGSAri agiri honetan ageri diren helbideetara agiria edo mezu elektronikoa bidaliz.

Norbaitek uste badu bere eskubideren bat ez dela errespetatu, erreklamazioa aurkez diezaioke Datuak Babesteko Espainiako Agentziari (<http://www.agpd.es>).

## 10. Nola bildu ditugu zure datuak?

AKGSAk honela lortu ditu erabiltzen dituen datu pertsonalak:

- Lan harremanak formalizatzeko eta langileen eta enpresaren arteko beste konpromiso batzuk betetzeko eskaerak eta formularioak.
- Laneko segurtasunaren inguruko politikak sortzen dituen datuak (osasun azterketetakoak barne).

Datu pertsonal hauek erabiltzen ditugu:

- Identifikazio datuak: izen-abizenak, NAN, posta helbidea, helbide elektronikoa.
- Datu pertsonalak: jaioteguna, laneko osasuneko datuak.
- Datu ekonomikoak eta finantzarioak: bankuko kontua, nomenen kudeaketako beste datu batzuk (laguntzak, maileguak, lan hitzarmeneko datu guztiak...), eta enpresaren eta langilearen arteko kontratu erlazioaren ingurukoak.

Laneko osasuneko datuak eta afiliazio sindikalaren ingurukoak hauen itzalpean daude: laneko kudeaketari buruzko indarreko legeria (Langileen Estatutua) eta laneko arriskuen kudeaketari buruzko indarreko legeria (Laneko arriskuen prebentzioaren Legea).

AKGSAk ez du erabiltzen babes bereziko daturik: jatorri etnikoa edo arraza, iritzi politikoa, erlijio sinesmena edo jarrera filosofikoa, afiliazio sindikala, datu biometrikoak eta sexu bizitza.